

A stylized illustration in shades of blue and red depicting a group of people in a meeting or discussion. The figures are simplified, with some wearing headsets or holding devices. The background is a dark blue gradient. Two thick, wavy lines, one red and one blue, cross the lower half of the image.

Eragin politikorako eredu dokumentua

Documento marco para la incidencia política



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Financia / Diru laguntzailea:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Edita / Argitaratzailea:



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Araba

Casa de Asociaciones Simone de Beauvoir
San Ignacio de Loyola 8 - 3^º - oficina 1
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel./Fax: 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Alameda Urquijo 30, Galerías Urquijo, ofic. 8
48010 Bilbao
Tel./Fax: 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Avenida Pasajes San Pedro 13, trasera
20017 Donostia
Tel./Fax: 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

coordinadora@ongdeuskadi.org
www.ongdeuskadi.org

Erakunde pribatuek garapenerako lankidetzan duten papera



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Erakunde pribatuak garapenerako agente bezala

Enpresak garrantzi handiko eragile sozialak dira, bai gure gizartean eta baita ere Hegoaldeko herrialdeetan. Une honetan bizi dugun globalizazio prozesu honek gero eta indar gehiago ematen die enpresei, ez bakarrik esparru ekonomikoan, baita ere politikoan eta sozialean. Horrela bada, botere harreman berriak eta erantzukizun partekatuak sortu dira azken hauen, administrazio publikoen eta gizarte zibilaren artean.

Gure mugetatik kanpoko ezarpen fisikoak eta merkataritza edo finantza ezarpenak dauzkaten nazioz gairik/koikapen anitzetako enpresak, Hegoaldeko herrialdeetako garapeneraren eragile nagusietako bat bilakatu dira.

Garatzen ari diren herrialdeek atzerriko inbertsio zuzenaren bitartez jasotzen dute kapital fluxuaren zati handiena, horrek aberastasuna, enplegua eta zerga bidezko sarrerak ematen baitizkiete. Enpresek, bestalde, paper garrantzitsua izan dezakete Garapenerako Laguntza Ofizialaren kudeaketaren arloan FAD kredituen bitartez eta, gainera, gero eta gehiagotan aukeratzen dituzte garapen bidean dauden herrialdeetako proiektu kontratuak.

Baina Hegoaldean gero eta presentzia handiagoa duten multinazionalak dira Hegoaldeko herrialdeetan eragin negatiboena dutenak: sarritan ez dute laneko legeria betetzen, ez eta Lanaren Nazioarteko Erakundearena ere; baliabide naturalak agortzen dituzte, beren interesak babesten dituzte herrialdekoen aurka joanda ere, espekulaziora jotzen dute, kontsumitzailearentzako zerbitzuen prezioak igotzen dituzte, transgenikoak sartzen dituzte, *dumping*-a aplikatzen dute, etab. Gainera, nazioz gairik enpresen konglomeratuak presioa egiten du Hegoaldeko herrialdeen interesen aurka doazen nazioarteko merkataritza arauak onartzeko eta Nazioarteko Moneta Funtsaren zein Munduko Bankuaren politika makro-ekonomikoez baliatzen dira beren irizpideak inposatzeko.

Asko dira atzerrian ezarpenak dauzkaten euskal enpresak. Produktzio esparruko filialen kopurua 182koa zen 2008. urtean (ez dira multzo horretan sartzen merkataritza enpresak, ezta banku eta elektrizitate zerbitzuak eskaintzen dituztenak ere) eta horiek eragin handia dute herrialde horien garapenean zuzeneko lanpostuak sortzen dituztelako (16.880 langile).

Nazioz gairik enpresek zein estatukoek eta fundazio pribatuak ere beste hainbat ekintza gauza ditzakete, zeintzuek eragin handia izan baitezakete Hegoaldeko herrialdeen garapenean, honakoak eginez:

- Garapen proiektuak babestu, aurrezki kutxek eta fundazioek gizarte lanetarako funtsen bidez ematen dituzten diru-laguntzak azpimarratuz.
- Ezagutza teknikoak eta baliabide materialak bideratu garapenerako proiektuentzat.

- Garapen proiektuetako boluntariora bideratu eta finantzatu enpresako langileen artean.
- Enpresako Erantzukizun Soziala (EES-a)¹ aplikatu erosketetan eta Hegoaldeko hornitzaileekiko harremanetan, horiek ere kontuan izan ditzaten beren kudeaketako alderdi etikoak eta lan arlokoak, giza eskubideak, alderdi sozialak eta inurumenari dagozkionak.
- EESean oinarritutako salmenta, produktu eta marketin politikak ezarri herrialde pobretuetako bezeroekin.
- Inbertsio sozialki arduratsuak sustatu, *ad hoc* eginiko finantza produktuak sortuz (produktu solidarioak, edota finantzaketa proiektuak garatuz).

Azken urteotan ikuspegi berri bat sortu da enpresa munduan, oraindik gutxiak barneratu dutena, baina halere kopuru esanguratsu batek aitortzen du Hegoaldeko herrialdeetako garapenerako lankidetzan parte hartzeak errentagarritasuna eman diezaiekeela epe labur nahiz luzera.

Garapenerako lankidetzako edozein modalitatetan parte hartzen duten enpresek, inurumenaren aldeko programetan parte hartzen dutenek bezala, ospea edota merkaturetan posizio abantailatsua emango dien proiektio soziala lortu nahi dute. Beren konpromiso gehienak marketin plan baten barruan daude, zeina legezkoa baita praktika antisozialak ezkututzen ez baditu, nahiz eta zoritxarrez sarritan horrela izaten den. Aitzitik, badira enpresa eredugarri batzuk, Hegoaldeko herrialdeetako garapenerako lankidetzaren aldeko benetako konpromisoak hartzen dituztenak jardunbide egokiak aplikatuz.

Enpresak lankidetzaren munduan sartzeak hainbat aukera eta mehatxu dakartza berrekin. Lehenengoen artean, aipatzekoak dira laguntza ekonomikoa, teknikoa, prestakuntza eta abar. Bigarrenei dagokienean, berriz, baliteke GGKEak ahultzea eta estatukoak ez diren eragile multzoan sarturik, enpresekin lehian aritu beharra izatea. Baina errealitate bikoitz horrek ez du ilundu behar berez positiboa dena, hots, gero eta enpresa gehiagok onartzen dutela erantzukizun soziala.

Dena den, ez dugu inola ere ahaztu behar enpresek beti onurak bilatzen dituztela. GGKEek ez bezala, beren abiapuntua ez dira *besteak*, *geu* baizik:

¹ EESren printzipioak eta arauak: Nazio Batuen Erakundearen Global Compact, Europar Batasunaren Liburu Berdea, Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Antolakundearen Multinazionalentzako Zuzentarau Ildoak, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Hiru alderdiko Aitorpena, Munduko Bankuaren Ekuadorreko Printzipioak, AECAre arauak, etab. ESSren tresnak: GRI Iraunkortasun Memoriak, AA 1000, SA 8000, ISO 26000, EFQM framework on CSR, SME Key, Forética-ren SG 21, Xertatu: ADI, Izaite Gida, GAIAREN Resoco, ASLEren Gida, OBRSCO ETEentzako ESS Gida, Iraunkortasunerako Bikaintasun Klubaren Gida, etab.

Enpresak: Geu Errentagarritasuna Merkatua Liberalizazioa Deslokalizazioa	GGKEak: Besteak Desinteresa Pertsonak Giza garapen iraunkorra Garapen endogenoa
--	---

GGKEen eta enpresen arteko harreman on baterako irizpideak ezartzean, komeni da abiapuntutzat hartzea ikuspegiaren arteko desberdintasuna eta emaitza bilaketa. Ez dugu ahaztu behar enpresek orokorrean (multzo horretan sartzen direlarik erantzukizun soziala dutenak ere) izan ohi duten eredu ekonomikoa pobreziaaren aurkako borrokaren eta Milurteko Garapen Helburuen kontrako norabidean doala. Bereziki Hegoaldean esku hartzen duten Iparraldeko multinazionalak ari gara, eurek fabrikatzen baitituzte neoliberalismoaren errealitate baztertzailak. Ondorioz, zuhur jokatu behar dugu, kasu bakoitza ongi aztertuz.

EES: enpresak kudeatzeko kultura berria

Giza garapen iraunkorra (bere hiru alderdietan: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) erreferentzia marko berri bilakatu da, zeinak gizarte osoaren konpromisoa barne hartzen baitu, indibidualki zein kolektiboki.

Horrela sortu da EES kontzeptua, alegia, enpresan kudeatu beharreko kultura berria, helburu estrategikotzat dauzkana iraunkortasuna lortzea eta epe luzerako balioa sortzea konpainiaren jarduerak eragindako interes talde guztientzat (langileak, akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, lehiatzaileak, eragile sozialak, administrazio publikoak, tokiko komunitatea eta gizartea oro har).

2007ko azaroan, Thomas Dodd Europako Batzordeko adituak, esan zuen EES-a Europako estrategiaren zati garrantzitsu bat dela enpresak haztea eta enplegua sortzea helburu duena, eta zazpi arrazoi eman zituen enpresetan EES-a bultzatzeko; horietatik hiru klima aldaketari, giza eskubideak errespetatzeari eta pobreziaaren aurkako borrokan jarduteari buruzkoak dira.

Hortaz, erakunde pribatuek eta bereziki enpresek, ESS-a barneratzen eta oso-osorik ezartzen doazen heinean, onartu eta kudeatu egin beharko dute beren jarduerak garapenean duten eragina, zehazki enpresaren jarduerak herrialde pobretuetako interes taldeetan daukana:

- Langileak: balore solidarioak sustatzea, Iparraldean egiten diren Hegoaldeari buruzko kanpainekin bat egitea eta horiei hedapena ematea (Zero Pobrezia...), etorkinak kontratatzea, etab.
- Bezeroak: herrialde pobretuetako salmenta politikak garatzea, botereaz ez abusatzea, Hegoaldeko herrialdeetako osasun eta ingurumen arau nazional ez aprobetxatzea, ustelkeriarik eza, teknologia transferitzea, marketin politikak garatzea, balore sozial, etiko edo ingurumenekoak onartzen ez dituzten bezeroak baztertzea.
- Hornitzaileak: Hegoaldean kokatutako enpresa hornitzaileei ESS baldintzak exijitzea (lanekoak, ingurumenekoak, etab.), kanpoko auditoriak aplikatzea, aliantza estrategikoak egitea herrialde pobretuetako hornitzaileekin, laguntza tekniko ematea, bidezko merkataritzako erosketak egitea, etab.
- Lehiakideak: Hegoaldeko arazoak azaltzea eta proiektu bateratuak sustatzea enpresa elkarten artean, jokabide kodeen inguruko hitzarmen sektorialak sinatzea erosketei, patenteen lagapenei edo salmenta baldintzen politikari buruz, etab.
- Administrazio publikoak: sektore pribatuaren eta publikoaren arteko politika koherenteak bilatzea, elkarren arteko aliantzak sortuz enpresen erantzukizun sozial korporatiboa garapenaren markorantz orientatu ahal izateko.
- Gizartea oro har: planifikatutako ekintza sozialaren bitartez, zeinak herrialde pobretuak garatzeko jarduerak barne hartu beharko bailituzke (proiektuak babestea, dohaintzak, langileek Hegoaldeko kausa solidarioetan laguntzea, langileen boluntariora, ezagutzak, finantzaketa edota mikrokredituak eskaintzea, etab.).

Hegoaldeko herrialdeekiko zuzeneko jardueretan, nazioz gaindiko/kokapen anitzeko enpresek EES estrategia bat ezarri eta praktikatu behar dute jardura horietan aberastasuna eta enplegua sortzeko eragile diren aldetik, balioa emanaz enpresa kokatzen den tokiko eragile sozio-ekonomikoekin, dagozkien administrazio publikoekin eta zonalde horretan lan egiten duten GGKEekin (Iparraldekoak zein Hegoaldekoak) izandako elkarriketei.

Erakunde pribatuen baloreak eta printzipioak Hegoaldeko herrialdeen garapenari dagokionean

Nazioz gaindiko/kokaleku anitzeko enpresek eta horrelakoak izan gabe ere Hegoaldeko herrialdeetako garapenarekin nolabaiteko lotura dutenek uneoro jarraitu behar dituzte balore eta printzipio hauek:

- Enpresaren izaera soziala ekonomiaren edo teknikaren gainera dago: gizakia da erakundearen jatorria eta jomuga.
- Epe luzerako balioa sortzea jarduerarekin zerikusia duten interes talde guztientzat.
- Enpresaren eta beronek partaidetutakoen negozio eremu guztiei eragitea, baita ere bere jarduera esparruko zonalde geografikoei eta hori garatzeko beharrezko den balio kate osoari.
- Iparraldeko zein Hegoaldeko eragile sozio-ekonomikoekin eta administrazio publikoekin hitz egitea.
- Epe luzerako inbertsio egonkorak egitea, tokiko baliabideez hornitzeko eta bertako produkzio sarearen garapena indartzeko.
- Erantzukizunak onartzea enpresaren ezaugarriak eta sektorearen berezitasunak kontuan hartuta (energia, finantzak, etab.).
- Nazioarteko zuzenbidea betetzea hain exijenteak ez diren nazioetako araudien gainera.
- Nazioarteko estandarrak errespetatzea² EESri dagokionean (giza eskubideak, laneko eskubideak, eskubide sozialak eta ingurumen eskubideak).
- Posizio menderatzaileaz eta indarraz ez abusatzea.
- Hegoaldeko herrialdeei ezagutza eta teknologia (patenteak) transferitzea.
- Marketin etikoa.
- Gardentasuna eta informazioa egiaztatzea.
- Ez egin elkartasun baloreen erabilpen desegokirik.

² Nazio Batuen Global Compact: nazioz gaindiko enpresen erantzukizunari eta giza eskubideen, laneko eskubideen eta ustelkeriaren aurkako esferan diharduten beste merkataritza enpresa batzuen erantzukizunari buruzko arauak. www.pactmundial.org -n ikusgai.

Lanaren Nazioarteko Erakundearearen Hiru aldeko Aitorpena nazioarteko enpresei buruz. www.ilo.org/global/lang-es/index.htm-n ikusgai.

Ekonomi eta Lankidetzaren Garapenerako Antolakundearen Gida enpresa multinazionalentzat. www.oecd.org/daf/investment/guidelines-n ikusgai.